

Cristina Eneako Udako Aire zabaleko Zinemaldiak hamaikagarren edizioa du aurten, eta ekainaren 28an hasiko da

· *Juantxo Marrero, Ekologia zinegotzia: "‘Ibilian’ izenburuarekin, ikusleek aukera paregabea izango dute hainbat bidaiariren bizipenekin gozatzeko".*

· *Aurtengo proiektzioak hiriko leku hauetan egingo dira: Cristina Enea parkea (Egia), Araba parkea (Amara), Arriaga parkea (Altza) eta Salvador Allende parkea (Bidebieta).*



Donostia, 2024ko ekainaren 25a.-

Ekologia Zinegotzi Juantxo Marrerok, Cristina Enea Fundazioko zuzendari Jose M.^a Hernándezekin batera, "Udako zinema-zikloa aire zabalean" zikloaren hamaikagarren edizioa aurkeztu du gaur. Zikloan bidaiekin lotutako istorioak dituzten pertsonen bizipen ezberdinak jasoko dira, 4 proiektzioen bidez.

"‘Ibilian’ izenburua aukeratu dugu erakargarri eta iradokitzaile izan dadin jendeak parke batean, giro atseginean, zine-emanaldi hauetaz goza dezan, udako giro goxoan gau eta zine esperientzia partekatuz", azaldu du Marrerok. "Aurtengoan ikusi ahal izango diren filmak dira La Strada, Fellinirena, Chihiroren bidaia, Un Paseo por el bosque edota Bidasoa, Fermín Muguruzarena".

Emananaldiak Cristina Enean, Arabha parkean, Salvador Allende parkean eta Altzako Harria parkean izango dira.

Cristina Enea Fundazioko zuzendari José M^a Hernándezek adierazi duenez, "aire zabaleko zinema ziklo hau klasiko bat bihurtu da jada Donostian, 2012an Cristina Enea Fundazioak lehenengo edizioa antolatu zuenetik; aurtengoa hamaikagarren edizioa izango da, eta horrek erakusten du herritarrek harrera ona egin diotela ekimenari".

Lehenengo edizioak Cristina Enean egin ziren, eta bi urteko etenaldia ere egon zen Covid krisiaren ondorioz; hala ere, 2022tik aurrera, Aire Zabaleko Udako zikloa hiriko beste parke batzuetara zabaldu da. Horrela, Egia, Amara, Bidebieta eta Altzako bizilagunek proiektio hauetaz aire zabalean gozatzeko aukera izango dute, hiriko beste auzo batzuetatik donostiarrak hurbildu eta zinemas gozatzeko aukera izango dutelarik.

Juantxo Marrerok adierazi duenez, "auzoak eta bertako bizimodua aldarrikatu nahi ditugu, normalean zirkuitu nagusietatik kanpo geratzen diren kokapenetan kultur jarduerak eskainiz. Beste edizio batzuen arrakastak eta publikoaren erantzunak bultzatu gaituzte edizio honetan kokapen horiek errepikatzeke".

Cristina Enea Fundazioko zuzendari José M.^a Hernandezek azpimarratu duenez, aurtengo filmetan "bidaiek eta bideek gizakiengan eragiten dituzten askotariko aldaketak, gogoetak eta bizipenak jasotzen dira, bai filosofikoak, bai fisikoak". Bidaia edo joan-etorri horiek gure ingurunearekin erlazionatzeko moduak dira, kasu batzuetan aisialdiko jarduerak, eta beste batzuetan bizirauteko moduak.

»» **Proiektzioen datak eta sinopsiak**

Cristina Enea Fundazioaren aire zabaleko udako zinema zikloa ekainaren 28an hasiko da, eta uztailaren 19ra arte luzatuko da, honako programazioarekin (eguraldiagatik saioren bat bertan behera geratuz gero, ez da data berririk jarriko):

• **Ostirala, ekainak 28, 22:30ean, Cristina Enea parkea (Egia): La strada (Federico Fellini, 1954. 103 min. Gazteleraz)**

Alarguntzen denean, Zampanó izeneko artista ibiltariak bere emaztearen ahizpa Gelsomina erosten du, haren amak erresistentziarik txikiena ere jarri gabe. Zampanóren izaera bortitza eta oldarkorra gorabehera, bizimodu nomadak erakartzen du neska, beti kalean ("strada", italieraz), batez ere jabeak ikuskizunean sartzen duenean. Bere joan-etorrian ezagutzen dituen hainbat pertsonaia bitxi haiekin bat egitea proposatzen badiote ere, Gelsominak Zampanóri leial jarraituko dio azken ondorioetaraino.

• **Ostirala, uztailak 5, 22: 30ean, Araba parkea (Amara): Chihiroren bidaia (Hayao Miyazaki, 2001. 124 min. Euskaraz)**

Chihiro hamar urteko neska bat da gurasoekin autoan bidaiatzen ari dena. Tunel bat zeharkatu ondoren, mundu fantastiko batera iristen dira, non ez dagoen tokirik gizakientzat, soilik lehen eta bigarren mailako jainkoentzat. Bere gurasoak txerri bihurtu dituztela jabetzen denean, Chihiro bakarrik eta beldurtuta sentituko da.

• **Ostirala, uztailak 12, 22:30ean, Arriaga parkea (Altza): Un paseo por el bosque (Ken Kwapis, 2015. 98 min. Gazteleraz)**

Ingalaterran bi hamarkada eman ondoren, Bill Bryson (Robert Redford) Estatu Batuetara itzuliko da bere bizitzako abentura handiari ekiteko: Apalacheak zeharkatzea, kontinenteko paisaia ederrenetako batzuk bisitatuz. Bidaia honetan lagun zahar baten konpainia izango du (Nick Nolte), bera baita berarekin joateko prest dagoen zoro bakarra. Kontua da "abenturak" hitzaren esanahiaz bakoitzak oso bestelako ideia duela. Filma Bryson bidaia-liburuaren idazle ezagunak idatzitako memoriaren egokitzapen bat da.

• **Ostirala, uztailak 19, 22:30ean, Salvador Allende parkea (Bidebieta): Bidasoa 2018-2023 (Fermin Muguruza, 2023. 71 min. Euskaraz)**



**cristina
enea**
FUNDAZIOA

2018ko udan Frantziak ezarri zituen Pirinio-Atlantikoko Bidasoako muga naturalaren pasagune batzuen kontrola eta itxierak, Europako gainontzeko herrialdeetara igartzeko etorkinen sarrera eragozteko, 10 hildako eragin zituen urtebetean. Zazpi pertsona hil dira 2021eko apiriletik Irun eta Hendaia arteko Bidasoa ibaiko uretan itota, eta beste hiruk bizia galdu zuten 2021eko urrian, Ziburun tren batek harrapatuta. Dokumental honek, ibaiaren bi aldeetako hainbat ekintzaileri ahotsa eta aurpegia emateaz gain, Harrera Sarea eta Bidasoa elkarteetako ordezkariak, bizia galdu dutenak ere gogoan izango ditu; izena, adina, bidaia eta ametsak, hildako kopuru hotzen atzean dagoen istorioa eta pertsonak ezagutuz, modu honetan tragedia gizatiartuz.

Mandasko Dukearen pasealekua, 66 20012 Donostia / San Sebastián | Tel: + 34 943 453 526 | cristinaenea@donostia.eus | www.cristinaenea.eus

Patronoak | Patronos:



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Babesle iraunkorra | Colaborador permanente:

